

Irakurtzen hasi, norbera hazi



IRAKURKETAREKIN KONPROMETITUTAKO FAMILIARENDAKO ORIENTABIDEAK



Nafarroako
Gobernua

Argitaratzailea

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Textuak

Pedagogi Berrikuntzako
Zerbitzuko Documentazio Zentrua


Marrazkiak

Asis Bastida Machiñena

Imprimaketa

Gráficas Ona, S.A.

D.L.: NA - 3.218/2001



Inkestek diotenez, hurrek eta gazteek ez dute nahikoa irakurtzen eta irakurriaren ulermen faltak eragiten du eskola-porrota hein handi batean. Baina irakurtzeko ohitura sustatzea haurren eta nerabeen heziketan ardura dugun guztion lana da, baita gizarte osoaren konpromisoa ere: familia, irakasleak, liburutegi publikoa, hezkuntza administrazioak, etab.

Horrela bada, familiak ere lan egin behar du, eskolarekin batera, haurtzaroan eta nerabezaroan irakurtzeko gaitasuna garatu eta bermatu dadin, eskola eta lan munduan arrakastaz ibiltzeko gaitasuna duten irakurleak prestatzeko eta, ahal izanez gero, irakurzaletasuna susta dadin.

Gai honek guraso asko kezkatzen ditu eta ez dakite zer jarrera hartu seme-alabek liburuekin duten harremanarekiko. Horregatik argitaratu dugu orientazio-gida hau. Familiak animatu nahi ditugu hemen azaltzen diren gomendioak praktikan jar ditzaten eta arrakasta izan dezaten opa diegu.

Jesús Laguna Peña

HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARIA






**IRAKURKETAREKIN
KONPROMETITUTAKO
FAMILIAK...**

Oinarria: CORONAS, M. *Eskolako liburutegia. Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gune bat*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2000.
(Blitz, liburutegiko sagua bilduma. Sorta berdea, 1)

...SEME-ALABAK IRAKURTZERA BULTZATZEN DITU,
HAUEK IRAKURTZEN IKASI AURRETIK ERE

*Eman iezazkiezu seme-alabei
liburu marrazkidunak, ikus
ditzaten eta irudiekin goza
dezaten. Horrela hasiko dira
liburuak eta irakurketa
maitatzen.*



...IPUINAK KONTATZEN DIZKIE, BAITA ERRIMAK
ETA OLERKIAK ERREZITATZEN ETA OZEN IRAKURTZEN ERE.



Berreskura ezazu irakurketa partekatzeko ohitura, baita honen inguruko erritual txikiak ere, hala nola lo hartu aurreko ipuina. Istorioak, pasadizoak eta txisteak ere kontatu diezazkiezu. Laster sumatuko dute liburuak direla istorio, pasadizo eta txiste horien bizileku agortezin eta naturala.

...EREDUGARRIA DA. LIBURUAK, ALDIZKARIAK ETA EGUNKARIAK IRAKURTZEN DITU ETA JOKABIDE IRAKURZALEAK TRANSMITITZEN DIZKIE SEME-ALABEI.

3

Liburuak irakur itzazu, ez bakarrik egunkariak edo aldizkariak, seme-alaben aurrean. Ondo pasatzeaz gain, kontuan har ezazu gazteek gurasoen jokabideak antzeratzen dituztela.



4

...SEME-ALABEI LAGUNTZEN DIE ERAKUSKETAK IKUSTERA, TXOTXONGILO EDO ANTZERKI EMANALDIETARA NAHIZ BESTELAKO KULTUR EKITALDIETARA, HAURREN SENTIKORTASUNA ETA IRUDIMENA DOI DADIN.



Eraman itzazu seme-alabak zeure hirian antolatzen diren haurrendako kultur ekitaldietara.

...SEME-ALABEKIN BATERA IRAKURTZEN DU ETA IRAKURRITAKOA
BERAIEKIN KOMENTATZEN DU.

5

Haiek irakurtzen dutena komenta ezazu otorduetan, paseatzen duzuen bitartean edo egokia derizkiozun unean. Horrela haurrak ikasiko du liburuak ez direla soilik giza jakituria jasotzen duten gune naturala. Besteekin ditugun harremanak errazten dituztela ere ikasiko dute.



...LIBURUAK DAUDEN LEKUETARA —LIBURUDENDAK ETA LIBURUTEGIAK—
LAGUNTZEN DIE SEME-ALABEI ELKARREKIN LIBURUAK IKUSTEKO ETA
AUKERATZEKO ETA ESKOLAKO LIBURUTEGIRA JOAN DAITEZEN ANIMATZEN DITU.



Lagun itzazu auzoko edo herriko liburutegiko haurrendako atalera, baita liburuak lasai ikusi ahal dituzten liburudenda batera. Anima itzazu libururen bat aukera dezaten eta utz iezaiezu erabakitzen erosi nahi duten al ez.

...ETXEOKO EDO NORBERAREN LIBURUTEGIA SUSTATZEN ETA ZAINTZEN DUTE ETA ETXEAN TXOKO EGOKIA GORDETZEN DUTE HORRETARAKO.

7

Ikasteko gelarik ez baduzue, egongelako txoko bat egokitu dezakezue irakurtzeko.



...IKASTETXEAN EGITEN DIREN AGERKARIAK AINTZAT HARTZEN
DITU ETA SEME-ALABEKIN BATERA IRAKURTZEN DITU.



*Anima itzazu seme-
alabak ikastetxeko
aldizkarian parte har-
dezaten, idazketak
irakurketarekin lotura
estua baitu.*



...BADAKI LIBURU BAT EROSTEA EZ DELA SALBUESPENEKO ZERBAIT,
ZENBAIT EGUN BEREZITAN, ORDEA (URTEBETETZEAK, ERREGEAK, ETAB.),
EZINBESTEKO OPARIA DA.

9

Pentsa ezazu liburuetan gastatzen duzuna zure
seme-alaben heziketarako dela.

Garrantzitsua da espezialistei aholku eskatzea:
irakasleei, liburu saltzaileei, argitaratzaileei... edo
beste guraso batzuen gomendioak aintzat hartzea.



...SEME-ALABEK AHALIK ETA GEHIEN IRAKURTZEA NAHI IZATEAREKIN EZ DAGO ITSUTURIK ETA BERAIEKIN PARTEKATZEN DITU ERE TELEBISTA SAIOAK, BIDEO-FILMAK, JOKO BIRTUALAK ETAB.



Saia zaitetz zure seme-alabek irakurtzeko denbora izan dezaten, baina lagunekin egoteko beta ere izan behar dute. Irakurketa beraien prestakuntzarako oinarrizkoa da, baina adiskidetasuna beharrezkoa dute oreka emozionalari eusteko.

NOLA AUKERATU LIBURUAK?

<http://www.alfaguarainfantil.com.ar> web-orrian oinarritua

Ikas ezazu zeure seme-alaben eskuetara iristen diren liburuak ongi aukeratzten. Irakurlearen adinarengatik edo liburu motarengatik desegokia den liburu batek haurra irakurketatik nahi gabe urruntzea eragin dezake.

Oraindik irakurtzen ez dakitenendako (2 eta 5 urte artean) Haurrak liburuei eusteko nahiko indar dutenean eta helduekin batera irudiak ulertzeko gaitasuna dutenean komenigarria da liburuak erakusten hastea. Lehen harreman hauetan irudiak funtsezko garrantzia du. Haur txikiak maite dituzte gai irudimentsuei nahiz eguneroko bizitzako gai buruzko liburuak, beti ere irudiaren nagusitasuna abiapuntutzat hartuta. Formatoak txikia izan behar du eta koadernaketak, berriz, sendoa, etapa honetan liburuaren xedea hauxe baita: haurrak liburua ikusiz eta ukituz gozatzea.

Irakurtzen hasiberriak direnendako (6 eta 7 urte) Adin honetan oraindik ere irudia da nagusi, baina testuak garrantzia hartzen du. Beraz, irudiz lagundutako testu laburrak izan dira egokienak. Formatoa askotarikoa izan daiteke, baina albur motakoa da nagusi. Hizkuntzak erraza izan behar du eta testuinguruan erraz ulertuko diren hitz berriak sartuko dira. Istorioak beti izan dira dibertigarriak. Horrela haurrek pozez eta gozamenaz ekingo diote irakurle izateari.

Jada ongi irakurtzen dutenendako (8 eta 9 urte) Adin horretan haurrek irakurtzeko mekanismoak menperatzen dituzte eta hiztegi konplexuagoa ulertzen dute. Irudia ez da jada ulerkuntza errazteko osagarria eta kontakizunak

luzeagoak eta mamitsuagoak dira. Liburua erakargarria izanen da ikusmenarendako eta tipografia argia izanen du. Istorioak jada argumentuarekin agertzen dira: planteamendua, korapiloa eta amaiera azkarra. Suspense eta akziodun kontakizunak behar dute izan. Errazak diren ipuin zoragarriak eta familia giroan garatzen direnak ere maite dituzte.

Irakurle finak diren haurrendako (10 a 11 años). Adin honetan neska-mutilek irakurtzeko gaitasuna garatu dute eta istorio konplexuagoekin gozatzeko gai dira. Urte hauetan, funtsezkoena da aurretik bereganatutako irakurtzeko ohitura behin betiko finkatzea. Horregatik, irakurtzen dituzten ipuin nahiz eleberrietako esaldiek ez dute izan behar, oraindik, luzeegiak, ezta konplexuegiak ere.

Irakurle nerabeendako. Aldi honetako gaiek helduko diete, nagusiki, nerabeen izaera eta pentsakerari, bere alde guztiak kontuan hartuz, baita adin honek berezko dituen kezka emozionalak eta gizarte eta lan arlokoak ere. 12 eta 14 urte arteko nerabeek, ordea, oso gogoko dituzte halaber zientzia fikzioa, komikiak eta polizi nobela. Hiztegia eta literatur testua gero eta hurbilago daude helduendako literaturatik. 15 urtetik 17ra bitarteko nerabeek, gainera, genero mota guztiak irakurtzen hasi behar dute.

Beste hainbat gomendio

Saia zaituz jaio orduko bere liburutegia izan dezan logelan. Liburuak eskura izanez gero, hauek zaintzen ikasiko du, eta konturatu gabe, bere bizitzaren zati izanen dira, janaria eta jostailuak bezain naturalki.

"Lehenengo hurrek oraingoak baino gehiago irakurtzen zuten" moduko konparaketak saihestu behar dituzu. Neska-mutilek gorroto diete horrelako alderaketei.

Ez zaie aurkeztu behar liburua telebistaren edo ordenagailuaren ordezkot gisa. Hurrak irakurtzera behartzea, telebistan haien futbol talde kuttunaren partida edo gogokoen duten telesaila ematen ari diren bitartean, liburuak gorrotarazteko bidea besterik ez da.

Seme-alabek irakurtzeko eskatzen dizutenean, ez iezaezu deusengatik ere inoiz ezetz esan. Nekaturik egon arren, esfortzua egin behar da, patxadaz hartu eta irakurri.

Saia zaituz gutxi irakurtzen duen neska edo mutila asko irakurtzen duenarekin ez alderatzen. Pertsonak ezberdinak dira eta bakoitzak bere denbora behar du.

Ez behartu seme-alabak irakurtzera, hobe duzu konbentzitzen saiatzea.


Pazientzia hartu. Haur guztiak ez dira berdinak. Batzuek denbora gehiago behar dute liburuengana hurbiltzeko. Garrantzitsua da etsirik ez hartzea, ez baduzu emaitza onik lortzen nahi bezain laster.


"Kixote Mantxakoa"ren garrantzia inork zalantzan ez badu jartzen ere, ez zaituz saiatu zure seme-alabek gai izan baino lehenago irakur dezaten. Horrek min handia egin dezake aurrerantzean liburuekin izanen duten harremanean.

Zuk zeuk ez baduzu irakurketaz gozaten ezin izanen duzu hori transmititu. Inoiz berandu ez denez, oraintxe duzu garaia irakurketaren bideari ekiteko edo berrekiteko, zure seme-alabekin batera. Zorte on.

BLITZ

Liburtegiko
sagua





anis Bastida